



Arartekoaren ebazpena, 2011ko maiatzaren 17koa, administrazio orokorreko postuak okupatu nahi dituzten irakasle funtzionarioek euskararen 4. hizkuntz eskakizuna akreditatu ahal izateko bideak prestatzeko aukerari buruzko jarduera bat amaitzen duena.

Aurrekariak:

1. EAEko administrazio orokorrean irakasle funtzionarioentzat irekita dauden lanpostu batzuk, euskararen 4. hizkuntz eskakizuna eskatzen dutenak, lortzeko interesa daukan irakasle batek erakunde honetan adierazi du hizkuntz eskakizun hori frogatzeko bideak jarri behar direla.

Interesdunak azaldu du irakaskuntzako lanpostuetako hizkuntz eskakizunen izaera ezberdina dela, lanpostu horientzat ez delako eskatzen 4. HE-aren baliokide den hizkuntz eskakizunik. Halere, irakasleei ez zaie eskaintzen administrazio orokorreko langileentzat dagoen akreditazio bidearen antzekorik. Bere kexan, erantsi du errealitate honek *de facto* galarazten diola irakasleentzat irekita dauden administrazio lanpostu hauen horniketan parte hartzen.

2. Kexa honen alde aurretiko azterketak pentsarazi zigun interesdunaren asmoa apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren (EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen duenaren) 32 a) artikuluan agindutakoan sar daitekeela: *“Euskal herri-administrazioen zerbitzuan diharduten langileek hizkuntz eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzeko, honako bide hauek daude: a) Administrazioan lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan edo barne-sustapenerako deialdietan, horretarako berariaz egiten diren probak”*.

Aitzitik, Justizia eta Herri Administrazio Sailari aukera hori iradoki genion eta sailaren arduradunak ez dira oso aldeko agertu. Erakunde honi eman dioten erantzunaren zati bat jarri nahi genuke hemen hitzez hitz:

“Lehenik eta behin, Funtzio Publikoari buruzko Legearen 46.1 artikulua ezartzen du funtzionarioentzat gordetako lanpostuak lanpostu-zerrendetan ezarritakoaren arabera beteko direla. Euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko den urriaren 13ko 19012004 Dekretuaren 10. artikulua ezartzen duenez, lanpostu-





zerrendetan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek baino ez dute parte hartu ahal izango lanpostuak betetzeko prozeduretan.

Lanpostu-zerrendetan, betiere, lanpostu bakoitza betetzeko eskatzen diren baldintzak zehazten dira, eta haien artean nahitaez egon beharko dira esleitutako hizkuntza-eskakizuna, eta, hala balegokio, derrigortasun-eguna, bai eta zein kidegotarako dauden irekita ere. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, bakarrik EAEko kidego orokorreko betetzeko daude irekita lanposturik gehienak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 611989 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren arabera.

Hala ere, zenbait plazatan gauzatu behar diren eginkizun eta zereginak kontuan hartuta, egoki iritzi zitzaion lanpostu-zerrendek beste aukera hau ere jasotzeari: beste administrazio batzuei (hala nola hezkuntza- edo osasunadministrazioak) atxikitako funtzionarioak, arlo horietan duten ezagutza-mailagatik, lanpostu horiek betetzera iritsi ahal izatea, dela behin-behineko izaeraz, lan-eginkizunen bidez, dela behin betiko izaeraz, lekualdatzelehiaketan bidez. Gogorarazi behar da, gai honi dagokionez, administrazio horietan lanpostuak betetzeko aukera hori ez dagokiela Administrazio Orokorreko funtzionarioei.

Horrela, beste administrazio batzuetako langileak lanpostu horietara iritsi ahal izango dira, baldin eta lanpostu-zerrendan ezarritako gainontzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen badute. Eta gainontzeko baldintza horien artean hizkuntza-eskakizuna dago.

Euskal Autonomia Erkidegoko herriadministrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 8611 997 Dekretuaren 32.1 artikularekin bat etorriz, euskal herri-administrazioen zerbitzuan diharduten langileek hizkuntza-eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzeko, besteak beste, bide hau dago: administrazioan lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan edo barnesustapenerako deialdietan, horretarako berariaz egiten diren probak.

Barne-sustapenerako prozesuen bidezko egiaztatze-prozesu hori lanpostuak behin betiko bete beharreko kasuetarako da, ez lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko; izan ere, kasu horietan, egiaztatzeko proba hori egiteak zerbitzu-eginkizunen prozeduraren xedea hutsaltzea ekarriko luke. Horrela, lanpostuak betetzeko erregelamenduaren 47. artikulua



ezartzen duenez, zerbitzu-eginkizunak arautzean, urgentziazko kasuetan, zerbitzuak hala eskatzen duenean, zerbitzueginkizunetarako esleitu daitezke funtzionarioak, hutsik dauden lanpostuak edo funtzionarioentzat erreserbatuta daudenak aldi baterako betetzeko nahiz eginbehar jakin batzuk egiteko. Lanpostuak betetzeko prozedura hau urgentziazko beharrian geroraezinetarako da; beraz, ezin da izan administrazio honetako langileentzat hizkuntzaeskakizunak egiaztatzeke beste prozedura bat, besterik gabe.

Lanpostuak behin betiko betetzeko prozesuei dagokienez, administrazio honetako lanpostu ia guztiak irekita daude EAEko Administrazio Orokorreko langileentzat, eta langile horiek, sei hilerik behin, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ahal izateko bi deialditara aurkezteko aukera dute.

Lanpostuak betetzeko araudiaren 13.4 idatzzatian jasotzen denez, Administrazioak aukera du merezimenduak eta baldintzak baloratzeko probarik ez egiteko, bestelako egiaztatzesistemak baldin badaude.

Ez dezagun ahaztu zertarako egiten diren probak lehiaketetan: helburua lanpostua betetzeko pertsonarik aproposena eta prestatuena hautatzeko proba egokia egitea da. Bete beharreko lanpostuaren ezaugarrietara egokitutako proba egiten da, pertsona egokia, alegia. lanpostuen eginkizunak eta zereginak betetzeko gaitasun handiena duena, hautatu ahal izateko.

Beraz, lekualdatze-lehiaketak ez dira langileek ez daukaten titulu jakin bat lortzeko bidea; are gutxiago, titulu hori lortzeko beste bide homologatu batzuk baldin badaude.

Hortaz, administrazio honek bere burua antolatzeke duen ahalaren barruan, baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasun-printzipioari lotuta eta prozedura-probak prestatzeko orduan -betiere berdintasunaren. merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak errespetatuz- daukan diskrezionalitate tekniko hartuta, ez da aurreikusten lehiaketetan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeke proba bat egiteko aukera.

Bestalde, eta 4. hizkuntza-eskakizunari dagokionez, hainbat bide ofizial daude edozein funtzionariok euskara-ziurtagiri hau lortzeko aukera izan dezan.





Lehenik eta behin, 4. hizkuntza-eskakizuna, HABEren laugarren mailako ziurtagiria bezala, Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C2 mailaren parekoa da.

Hori dela-eta, HABEren laugarren mailako ziurtagiria eskuratzeko, HABEko erregistroan izena emanda dauden euskaltegietan edo autoikaskuntzako zentro homologatuetan edo Euskal Etxeetan matrikula egin duen pertsona orok egin ahal izango du azterketa.”

3. Gainera, kexa hau izapidetzerakoan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) laguntza eskatu dugu, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak azaldu baitzigun ez dagokiola berari zehaztea zein langilek parte hartu ahal duen erakunde honek urtero egiten dituen deialdietan.

Gure eskaerari erantzunez, IVAPen zuzendariak esan digu irakasleak deialdi hauetatik baztertuta geratu ohi direla, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren (EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen duenaren) lehenengo xedapen gehigarrian agindutakoa aplikatuz. (“Hezkuntzari, Osasunari eta Ertzaintzari dagozkion arloak nolakoak diren eta beren eginkizunetan dituzten berezitasunak aintzakotzat hartuta, hizkuntza normalkuntza-prozesua arautzeko arau bereziak izango dira arlo horietan”).

Gogoetak

1. Justizia eta Herri Administrazio Sailak emandako erantzuna (ebazpen honen bigarren aurrekarian erreproduzitu dena) irakurtzen badugu, ulertuko dugu zergatik errefusatu den erakunde honek iradokitako aukera, kexa egin duen pertsonaren asmoari erantzuna eman ahal izango liokeena.

Ez errepikatzeko, arrazoi horiek laburbilduko ditugu, eta gure ustez arrazoi horiek zehazten dituzten baieztapenak adieraziko ditugu:

- 1.1. Administrazio honetako lanpostu ia guztiak EAEko administrazio orokorreko langileei irekita daude, eta langile horiek sei hilean behin bi deialditara aurkezteko aukera izaten dute, hizkuntz eskakizuna frogatu ahal izateko.



- 1.2. Hizkuntz eskakizuna frogatzeko prozedura, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren (EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen duenaren) 32.1 artikuluan azaltzen dena, behin betiko barne-hornikuntzako prozedurei dagokie.
- 1.3. Urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren (euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak hornitzeko araudia onetsi zuenaren) 13.4 artikuluan azaldu zen administrazioak merituak eta betekizunak baloratzeko probak ez egiteko aukera duela, baldin eta akreditaziorako sistema alternatiboak badaude.
- 1.4. 4. hizkuntz eskakizuna HABEren laugarren mailako ziurtagiria eskuratzuz frogatu ahal da.

Erakunde honen ustez, aurreko baieztapenek, ordea, ñabardura batzuk behar dituzte:

- 1.1. Administrazio orokorraren lanpostuen zerrendaren errealitatea da ia lanpostu guztiak EAEko administrazio orokorreko langile guztientzat irekita daudela eta langile horiek sei hilean behin bi deialditara aurkeztu ahal direla hizkuntz eskakizuna frogatu ahal izateko. Halere, badago beste errealitate bat ere, kontuan hartu behar duguna: bi lanpostu daude irakaskuntzako funtzionarioei irekita eta lanpostu horiek betetzeko 4. HE frogatuta eduki behar da. Langile hauek ez daukate administrazio orokorreko langileek daukaten akreditazio bidearen antzekorik. Errealitate horrek ekarri du, hain zuzen ere, kexa hau ipintzea.
- 1.2. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren (EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen duenaren) 32.1 artikuluan bakar-bakarrik azaltzen da lanpostuen barne-hornikuntzarako deitzen diren prozesuetan horretarako egiten diren proben bidez egingo dela akreditazioa. Ez da azaltzen, ordea, prozesu horiek behin betiko hornikuntza prozesuak izan behar direnik. Horrela, Justizia eta Herri Administrazio Sailak emandako erantzunean horri buruz egindako baieztapena interpretazio hutsa da.
- 1.3. Urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren (euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak hornitzeko araudia onetsi zuenaren) 13.4 artikuluan azaldu zen merituak eta betekizunak baloratzeko probak egitetik salbuetsi ahal dela, baldin eta akreditaziorako sistema alternatiboak badaude. Baina zehaztu behar dugu hor esaten dela





“salbuetsi” ahal dela, eta ez probak ez direla egingo. Azken interpretazio horrek, gure ustez hornikuntzako araudiaren aurreikuspen hau lehen aipatutako artikuluekin, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren (EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen duenaren) 32.1 artikuluekin alegia, bateratzea ahalbideratzen du.

- 1.4. 4. hizkuntz eskakizuna HABEren laugarren mailako ziurtagiria eskuratzu frogatu ahal izateak ez du esan nahi berehala frogatzeko bidea dagoenik. Erantzunean bertan aitortu denez, ziurtagiri hori eskuratzeko azterketa egiteko aukera izateko, ezinbestekoa da alde aurretik matrikula egitea euskaltegietan, HABE izena emanda dauden euskara ikasteko zentro homologatuetan edo Euskal Etxeetan.

Ondo dakigu antolaketa eta kudeaketa arazoak daudela horretarako, eta horrelako arazoiek Justizia eta Herri Administrazio Sailaren baieztapenetako batzuk azaltzen dituzte. Baina, aldi berean, esan behar dugu baieztapen horietako batzuk interpretazio hutsak direla, eta kexa egin duen interesdunaren asmoari ez diotela erantzuten. Izan ere, administrazio orokorraren lanpostuen zerrendaren osaera eta hizkuntz eskakizunak frogatzeko deialdien antolaketa nolakoak diren ikusita, interesdunaren asmoa erabat zilegi da.

2. Are gehiago, Justizia eta Herri Administrazio Sailak erakunde honi beste baieztapen batzuk egin dizkio. Uste dugu interesgarri izan daitezkeela:

“Halaber, gogoratu behar da irakasleen kidegoan bete beharreko plazek ez dutela Administrazio Orokorreko lanpostu-zerrendaren proportzio handia suposatzen eta hizkuntza-eskakizun desberdina dutela indarrean dagoen araudian ezarritako irizpideen arabera.

Horrela bada, guztiek ez dute 4. hizkuntza-eskakizuna, askok 3. hizkuntza-eskakizuna du, eta hori egiaztatu duenez, lanpostu horiek eskuratu ahal izango lituzke. Horrez gain, lanpostu-zerrendak ez du esleitutako hizkuntza-eskakizun guztietarako derrigortasunik ezartzen, alegia, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea ez da irakasleen kidegoko plaza guztietarako baldintza.

Horri gaineratu behar zaio, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko eta



haren erakunde autonomoetako lanpostuak zerbitzu-betekizunean hornitzeko prozedura arautu zuenak, 14.3 artikuluan xedatzen duela derrigorrezko 4. hizkuntzaeskakizuna duen lanpostua izanik, eskatzaileen artean ez badago lanpostua betetzeko baldintza guztiak betetzen dituenik, 3. hizkuntzaeskakizuna duena hautatuko dela.”

Berriro ere, gogoeta horiek ez dute desagerrarazten kexa ekarri duen kasuaren errealitatea: irakasleentzat administrazio orokorrean irekita dauden lanpostuak betetzeko behar den 4. HE frogatzeko biderik ez dagoela, administrazio orokorreko funtzionarioek horretarako bideak badauzkaten arren.

3. Hirugarren aurrekarian, irakasleek hizkuntz eskakizuna frogatzeko proben deialdietan parte hartzeari dagokionez HAEEK, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren (EAeko administrazio publikoetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen duenaren) lehenengo xedapen gehigarria aplikatuz, egin ohi duena azaldu dugu. Egia da xedapen honek irakaskuntza sektorearen berezitasuna aitortzen duela, eta berarentzat berariazko arauketa daukala. Baina horrek ez du oztopatzen balizko akordioak egitea, Osakidetzarekin egin denaren antzekoak. Akordio hori, hain zuzen ere, HAEEK 4. HE frogatzeko deitu dituen proba arruntetan Osakidetzako langileek parte hartu ahal izateko egin da.

Ondorioak

Erakunde honen ustez, EAeko administrazio orokorrean irakasle funtzionarioentzat irekita dauden eta euskararen 4. hizkuntz eskakizuna eskatzen duten lanpostuak badaude, bideak jarri behar dira irakasleek hizkuntz eskakizuna frogatu ahal dezaten, administrazio orokorreko funtzionarioek egiten duten antzean.